



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

PRAKTIKAK BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAREN ARAUDIA

Haur Hezkuntzako Gradua Lehen

Hezkuntzako Gradua Gizarte Hezkuntzako

Gradua

www.ehu.eus

AURRIBIDEA

SARRERA	2
XEDAPEN OROKORRAK.....	2
1. Artikulua: APLIKAZIO EREMUA.....	3
2. Artikulua: ARAU OROKORRAK.....	4
3. Artikulua: PRAKTIKEN IZAERA.....	4
4. Artikulua: PLAZEN ESKAINTZA eta MATRIKULA.....	6
5. Artikulua: TUTORETZA	7
6. Artikulua. PRAKTIKETAKO KOORDINATZAILEA	.9
7. Artikulua: UPV/EHUko IRAKASLE TUTOREAREN ESKUBIDE eta ZEREGINAK	.10
8. Artikulua: KANPOKO TUTOREAREN ESKUBIDE eta ZEREGINAK	10
9. Artikulua: IKASLEAREN ESKUBIDE eta ZEREGINAK.....	11
10. Artikulua: KREDITUAK TRANSFERITZEA eta AITORTZEA	12
11. Artikulua: SALBUESPENAK eta KASU BEREZIAK	12
12. Artikulua: EBALUAZIOA eta KALIFIKAZIOA.....	15
AZKEN XEDAPENAK.....	16

SARRERA

Arautegi hau gestioaren eta ebaluazioaren arloko UPV/EHUko arautegien menpe dago. Praktikei buruzko UPV/EHUko arautegi eguneratua unibertsitatearen webgunean dago eskuragarri.

UPV/EHUko ikasleek erakunde lankideetan egiten dituzten kanpoko praktikei buruzko arauak UPV/EHUko ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegian daude jasota (2019ko uztailaren 19ko Gobernu Kontseiluan onartuak, eta Graduak eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearen eta ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearen 2019ko uztailaren 24ko erabakiaren bidez EHAA n argitaratua; 2019ko abuztuaren 6eko EHAA, 147. zk.). Arautegi horretan jasota daude bai curriculumetik kanpoko praktika akademikoak (titulazioko ikasketa planean zehaztuak), bai curriculumetik kanpoko praktikak edo borondatezko praktikak.

Testuan zehar kanpoko tutore hitza erabiltzen da legedian edo UPV/EHUko beste araudietan aipatzen den "instrukture" figura izendatzeko.

XEDAPEN ORORORRAR

1. Artikulua: APLIKAZIO EREMUA

- 1.1. Arautegi honek Bilboko Hezkuntza Fakultateko Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako graduak praktikak definitu, egin, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.
- 1.2. Arautegi honen edukia, besteak beste, ikasleen ebaluazio sistemaren, kredituen aitortpen eta transf erentziaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

2. Artikulua. ARAU ORORORRAK

- 2.1. Ikasleak matrikula egiterakoan aukeratuko duen zentroan egingo du egonaldia.
- 2.2. Ikasleak programaren arabera zehaztutako aldian egingo du praktiketako egonaldia, egunean batezbeste 6 ordu beteko ditu.
- 2.3. Curriculumeko praktikak egiten dituzten ikasleek Gizarte Segurantzaren kotizatutako dute oinarri hartuta PCM/313/2023 Agindua, martxoaren 30ekoa, urtarrilaren 30eko PCM/74/2023 Agindua, Gizarte Segurantzaren kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta 2023ko ekitaldirako Lanbide Heziketari buruzko legezko arauak garatzen dituenak.
- 2.4. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, praktiketako egonaldian, eskola jarduerari dagokion ordutegia beteko dute, eta zentroko Klaustroari dagozkion beste jarduera batzuetan ere hartu ahal izango dute parte (prestakuntza, tutoretzak).

Gizarte Hezkuntzako ikasleen kasuan, gizarte erakundeak daukan jardueraren arabera, ordutegia goizez, arratsaldez edo goiz eta arratsaldez izan daiteke. Gradu honetan, praktiken zati bat asteburuetan burutu ahal izango da, betiere horrek ikasleen prestakuntza aberastuko duela ikusten bada, eta erakundeko tutorearen presentzia bermatzen bada. UPV/EHUko ikasle aseguruak asteburuko jarduera akademikoa estaltzen du.

3. Artikulua: PRAKTIKEN IZAERA

- 3.1. UPV/EHUko araudiak praktikak bere 2. artikuluan definitzen ditu: kanpo-praktika akademikoak ikasleek gauzatzen eta Unibertsitateak gainbegiratzen dituzten prestakuntza-jarduerak dira, eta haien helburua ikasleei prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak garatzeko eta osatzeko bidean laguntzea da, jarduera profesionalerako prestatzen, lan-merkatuan egokitzen eta ekimenerako gaitasuna sustatzen lagunduko dieten gaitasunez ahalik eta errazkien jabe daitezen.
- 3.2. Praktiken arduraduna Dekanoa, edo horretarako izendatu den dekanordea, da. Arduraduna da praktikak antolatu, koordinatu eta kudeatuko dituenak, eta kasua denean, Praktiketarako Batzordeen laguntza izango du.
- 3.3. Bilboko Hezkuntza Fakultatearen Practicum indarrean dauden akordioen arabera horretarako aukeratuak izan diren ikastetxe edo entitateetan aurrera eramaten diren hiru enbor- eta derrigorrezko irakasgaiz osatzen da. Praktika curricular hauen luzapena eta ordutegia RD. 1393/2007 12.6 artikuluan arautzen denaren arabera, derrigorrezko irakasgai madura dagokion irakaskuntza planak ezartzen dituenak dira.
- 3.4. Practicum II egiteko nahitaezkoa da gaindituta edo aitortuta izatea Practicum I. eta Practicum III egiteko, Practicum II.
- 3.5. Ikasleak praktika-egonaldia Bilboko Hezkuntza Fakultateak esleitutako ikastetxe edo erakundeetan egingo du. Egonaldian zentroan ezartzen zaion egutegia eta ordutegia errespetatuko ditu. Zentroaren esleipena matrikula egiterako

momentuan dagoen eskaintza ikusita, ikasleak egindako aukeraketaren arabera izango da. Ikasleagoa espediente akademikoaren arabera iritsiko da eskaintzara. Ikasleak ez du ikastetxe edo zentroekin aldezturik egin behar Fakultatearentzako plaza gehiago bilatzeko asmoz, izan ere antolakuntzaren ardura Bilboko Hezkuntza Fakultateko Dekanoaren edo Dekanordearen ardura delako.

3.6. Praktiken Zuzendariordetzak antolatutako jardunaldietan eta prestakuntza-mintegietan parte hartuko du ikasleak, baita Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle-tutoreak programatutako mintegietan ere. Halaber, memoria osatuko du, unibertsitateko tutoreak markatutako ildoak errespetatuz.

3.7. Huts egiteei buruzko arauak. Praktikak nahitaez egin beharrekoak dira. Joan ezean, ikasleak ikastetxeari eta Hezkuntza Fakultateko tutoreari jakinarazi beharko die eta ziurtagiria aurkeztu. Ziurtagiria aurkeztuta onartuta dauden huts egiteak UPV/EHUko ikasleen arautegi orokorrean daude jasota. Garrantzitsua da kontuan hartze saio bakoitza (goizekoa eta arratsaldekoa) huts egite bat dela. Beraz, egun osoan joan ezean, bi huts egite izango dira. Bi saiotara justifikatu gabe huts eginez gero, suspentso kalifikazioa jarriko da. Justifikatutako 7 huts egite izanez gero, errekuperatu egin beharko dira.

Praktikaldia ezin da luzatu; beraz, Bilboko Hezkuntza Fakultateak (UPV/EHU) onartutako egutegiaren arabera Practicum bakoitzari dagozkion datak errespetatu beharko dira.

Salbuespenezko egoeretan baino ezin izango dira luzatu Practicumeko datak, eta, betiere, Practicumeko dekanordeak ontzat eman beharko du aldaketa hori.

3.8. Practicum egonaldia, formakuntza saioak eta zentroetako egonaldia barne, Fakultateak urtero argitaratuko dituen egutegietan arautuko dira.

3.9. Gradua gaztelaniaz (Gizarte Hezkuntzako Gradua) edo hirueledun taldean egiten ari diren ikasleek aukera izango dute Practicum I, 11 eta III euskaraz egiteko (Ikus ikaslearen gida). Horretarako, B2 edo horren baliokidea den maila egiaztatu beharko dute ziurtagiria dagokion datan Practicum dekanordearen aurrean aurkeztuz. Fakultateak ez du inolako probarik egingo hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko, ikaslearen erantzukizuna izango baita gaitasun hori egiaztatzea. Horretarako Dekanordetzatik eskuratu dezakeen hurrengo urtean euskaraz egiteko asmoa adierazten duen txantiloia bete du. Urte guztietako eskakizunak informazio eta dokumentazio osoarekin lagunduko dira. Edozein kasutan B2 euskara mailaren ziurtagiria matrikula osatu aurretik helaraziko da. Horrela ez balitz nahiz eta ikasleak euskarazko zentroa aukeratu balu ofizioz gaztelaniako batetara bideratua izango da.

3.10. Hizkuntzaz aldatzeko eskakizuna egiten duen ikasleak, onartuko balitzaio, aldaketa horrek dituen eraginak onartzen ditu (Zentro, tutore, etb. aldaketak barne). Hizkuntza gaitasuna egokiro ziurtatu ez duen ikaslea euskarazko talde

batean matrikula egingo balu eta euskarazko zentroa aukeratu balu ofizioz gaztelaniazko zentro batetan esleituko da.

- 3.11. Praktikak UPV/EHUtik kanpo (SICUE/SENECA, etab.) egiteko asmoa duten ikasleek horretarako indarrean dagoen eskaintzaren menpe geratuko dira. (Ikus Nazioarteko Harremanak)
- 3.12. Garapenerako Lankidetzan praktikak egin nahi dituzten ikasleek, Lankidetzaren Bulegoak ezarritako baldintzak eta arauak beteko dituzte. (Ikus beren beregiko Araudia)
- 3.13. Praktiketako araudia betetzearen erantzukizuna ikaslearena da, eta ez da ikasle eta tutorearen arteko hitzarmen indibidualik onartuko, tutorea UPV/EHUkoa zein erakundekoa edo ikastetxekoa izan. Ikasleak lan-hitzarmenik daukan zentro batean ezin izango da Practicum egonaldia bideratu.
- 3.14. Praktikak ikaslearen prestakuntzarako hezkuntza jarduna dira, eta, beraz, ikaslea ez dago behartuta lan harreman batek izango litzukeen zereginak egitera. Horrela, bada, ezin onar daiteke ikasleari lanpostu batek berezko daukan lanik ematea. Horrelakorik gertatuz gero, urratu egingo lirateke ikaslearen eskubideak, eta ikaslearen beraren erantzukizuna da mota horretako gorabeheren berri ematea praktiketako dekanordeari.
- 3.15. Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza izaera dela eta, haien bururatzeko prozesuan inolaz ere ez da lan-harreman bati dagozkion betebeharrak ondorioztatu ahal izango, eta haren edukian inolaz ere ez da lanpostu bati dagozkion betebeharrak ordezkari litzakeen egitekorik onartuko. Ikasleak, honelako ezer gertatu balitz, praktiketako zuzendaritzari komunikatu beharko dio.
- 3.16. Era berean, ikasketak bukatutakoan ikaslea zentroko langile bilakatzen bada, praktiketara egintako denbora ez da antzinatez aurrera begira aintzat hartu ahal izango eta langile berria ez da horregatik proba-epa igaro beharrik gabe gertatuko, baldin eta aplikatu beharreko lan-hitzarmenean ez bada horrelakorik zehazten. Lan-hitzarmenaren epea ezin izango da inolaz praktika egonaldiarekin gainezarri.
- 3.17. Egun, aseguruia dago (Ikasle) UPV/EHUko ikasle guztiak estaltzen dituen, edozein izanda ere ikaslearen adina.
- 3.18. Praktiketako zentroak proposamena egiten badu jardueraren bat zentrotik kanpora edo ohiko egutegitik aparte egiteko, zentroak onarpena eskatu beharko dio UPV/EHUko tutoreari ikaslea babestuta egon dadin edozein gorabehera gertatuta ere; tutoreak idatziz emango du baimena eta kopia bat Praktiketako Bulegora bidaliko du onar dezaten. Baimenik eman ezean, zentroak beste jarduerara bat esleituko dio ikasleari, bai eta beste tutore bat ere, beste jarduerak dirauen aldirako.
- 3.18 Bilboko Hezkuntza Fakultatean matrikulatutako ikasleek Bizkaiko ikastetxeetan egingo dituzte Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatutako praktikak.

4. Artikulua: PLAZEN ESKAINTZA ETA MATRIRULA

- 4.1. Praktiketako dekanordeak ekainean argitaratzen ditu hurrengo ikasturterako plazak. Ikaslea matrikulatzeko deitua denean, praktika-ikasgaian matrikulatzeaz gainera, praktikak burutzeko erakundea edo ikastetxea aukeratuko du.
- 4.2. Practicum II eta Practicum III irakasgaietan irailean matrikulatzen diren ikasleek urriaren la baino lehen aukeratu beharko dute ikastetxea (mugikortasun programen bidez datozen ikasleak epe honetatik kanpo geratzen dira). Horrela egin ezean, ofizioz esleituko zaie ikastetxea. Practicum I irakasgaiaren kasuan, matrikula egitean aukeratu beharko dute ikastetxea edo, bestela, ofizioz esleituko zaie.
- 4.3. Practicuma baliozkotuko duten ikasleek EZ dute ikastetxe edo erakunderik aukeratu behar matrikula egitean.
- 4.4. Ikasleak hiru praktikak egingo ditu bi edo hiru zentrotan, eta bere ardura hori bermatzea da.

Erakundea edo ikastetxea aukeratzeko orduan, ikasleak hurrengo baldintzak¹ izango ditu:

- a) Gizarte Hezkuntzako Graduan: gutxienez bi esparrutan egin behar dira praktikak. PII eta PIII erakunde berean egingo ditu. PI beste esparru edo erakunde batean egingo du.
 - b) Haur Hezkuntzako Graduan: praktikak gutxienez dela ikastetxe bitan egingo dira. PIII-a 3-6 zikloan egin beharko du.
 - e) Lehen Hezkuntzako Graduan: praktikak gutxienez dela ikastetxe bitan egingo dira, eta, gutxien dela, bi ziklotan.
 - d) Gradu bakoitzari hiru praktika-epe ditu. Epeak, egutegia, betebeharrak eta bestelakoak araudi honetan eta gradu bakoitzaren GIDAN daude araututa.
- 4.5. Matrikulatu aurretik Bilboko Hezkuntza Fakultateko web orrian hurrengo ikasturteko praktiketako egutegia argitaratuta izango da. Praktiketako egonaldia hasi aurretik ikasleak beren beregiko formazioa izango dute. Egonaldiarekin batera irakasle tutorek deituko dituen mintegiak ere izango ditu. Ikaslearen zeregina eta erantzukizuna aurretiko formazio saioetara zein mintegietara joatea da. (Ikus Ebaluazioa).
 - 4.6. Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako dekanordetzan horren berri eman beharko du, idatziz.

¹ Baldintza hauen helburua gure ikasleen prestakuntza ahalik eta askotarikoena eta aberatsena izatea da; gizartearen eta hezkuntzaren egoerak horretarako aukera ematen duen guztietan eskatu ahal izango dira.

Fakultatearen ardura da Practicum irakasgaiko prestakuntza koordinatzea, baina ez da bere ardura praktiketako plazak bermatzea; hala ere, bere esku dagoen guztia egingo du plaza guztiak eskaintzeko.

Haur eta Lehen Hezkuntza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratuko du praktiketako prestakuntza zentrotzat aitortuta dauden zentro eta erakundeen zerrenda, eta fakultateei plaza nahikoa eskainiko die titulazio bakoitzeko ikasleen eskaerari aune egiteko.

Gizarte Hezkuntza

Bilboko Hezkuntza Fakultateak egin beharreko gestio guztiak egingo ditu praktikak egiteko plaza nahikoa izateko arlo desberdinetan.

II. Practicum eta III. Practicum ikastetxe berean egingo dira, eta ikasleen ardura izango da baldintza hori bermatzea matrikula egiteko eta erakundea hautatzeko unean.

Baldintza hori izanik, zentroa aukeratzeko irizpide bakarra akademikoa da, hau da: ikasleak espedienteko notaren eta gainditutako kreditu kopuruaren arabera aukeratu du zentroa. Zentroa behin aukeratuta, ikasleak konpromisoa hartuko da praktikak behar bezala egiteko, eta, betiere, isilpean gorde beharko ditu bere eskuetara heltzen diren datuak.

5. Artikulua: TUTOREA

- 5.1. Matrikula epea amaitu ostean, abian jarriko da tutorea esleitzeko prozesua. Praktiketako bulegotik Sail bakoitzari bidaliko zaio ikasturte horretan esleituko zaizkion ikasle zerrendak, sailak berak tutoreak izenda ditzan. Ikasle bakoitzari Informazio hori GAUR plataformaren bitartez jakinaraziko zaio.
- 5.2. Irakasle-tutoreak GAUR sistemaren bitartez jasoko ditu: praktiketan esleitu zaizkion ikasleen zerrenda, kanpoko tutoreen datuak, informazio gehigarria eta prozesuan erabiliko diren dokumentuak. GAUR sistemaren datu basean agertuko ez balira, tutoreak altan emango ditu kanpoko tutorearen datuak eta ikaslearen datuekin erlazionatuko dira, hauek ere plataforman sartzea baimenduz.
- 5.3. Irakasle-tutorearen ardura izango da ikasleari Practicum bakoitzaren ezaugarriak azaltzea, praktika-aldirako orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla bermatzea, baita jarraipena egin eta hari buruzko ebaluazio-txostena betetzea ere. Txosten hori GAUR plataforman utziko da. Tutoreek Practicumaren dokumentu guztiak GAUREn bete eta gordeko dituzte.

- 5.4. Ikasle bakoitzak tutoretza bikoitza izango du: alde batetik UPV/EHUko irakaslearena (hemendik aurrera tutore); eta bestetik erakundeko gizarte hezitzailea edo ikastetxeko maisu-maistrarena (UPV/EHU-ko beste araudietan instruktore eta araudi honetan hemendik aurrera kanpoko tutore).
- 5.5. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetako Practicum III egin bitartean, tutoreak praktiketako zentroetara joango dira tutoretzan daukaten ikaslearen praktikak nola doazen aztertzeko. Bisita egin aurretik, Praktiken Bulegora bisita plan bat bidaliko dute, sinatuta, izan ditzakeen ondorioetarako jasota gera dadin.

6. Artikulua. PRAKTIKETAKO KOORDINATZAILEA

6.1.- Prestakuntza zentro bakoitzean praktiketako koordinatzaile bat egongo da, eta ikasleak zentroan egin behar dituen praktikak behar bezala doazela zainduko du. Praktiketako koordinatzailea zentroko zuzendaria izango da, baina ikasketaburuan eskuordetu ahal izango du eginkizun hori. Prestakuntza zentroan ikasle bat edo bi baino ez daudenean praktiketan, koordinatzailea ikasle tutoretako bat izango da.

6.2.- Praktiketako koordinatzailearen eginkizunak dira:

- a) Praktikak koordinatzea, praktikak behar bezala doazela zaintzea eta Eusko Jaurlaritzan hezkuntza arloko eskumenak dituen sailak praktikei buruz eskatutako informazioa ematea.
- b) Ikasle bakoitzari praktikumeko tutorea esleitzea horretarako akreditatutako ikasleen artetik. Tutorea esleitzeko kontuan hartuko da: irakasleak prest dauden zeregin hori hartzeko, zer esperientzia profesional duten eta irakasleen prestakuntzan zer esperientzia duten.
- e) Praktiketako ikasleei laguntza ematea prestakuntza zentroan egingo duten egonaldian eta praktikei buruzko informazioa ematea.
- d) Ikasle bakoitzari bere programa egiteko lanean laguntzea unibertsitateko erreferenteekin koordinatuta.
- e) Unibertsitateko erreferenteekin lankidetzan aritzea bi erakundeen arteko lana koordinatzeko.
- f) Praktiketako ikasleen prestakuntza prozesuan tutoreak egin beharreko lana zehaztea.
- g) Praktiketako ikasleak izango dituen ordutegiak eta espazio guneak antolatzea.
- h) Unibertsitateko erreferenteek praktiketako ikasleen tutoreekin egin beharreko bileren egutegia zehaztea.
- i) Praktiketako ikasleei harrera egitea eta praktiken hasieran behar duten laguntza ematea.
- j) Praktiketako ikasleei zentroko prestakuntza proiektua eta curricularra azaltzea, antolaketa eta gestioa, eta praktikak egiteko behar dituzten agiri guztiak ematea.
- k) Praktiketako ikasleei zentroaren gizarte eta hezkuntza testuingurua azaltzea.
- l) Praktiketako ikasleei laguntza ematea zentroaren egunerokotasunean parte har

dezaten: klaustroan, sailetan, batzordeetan eta tutoretzatan, besteak beste.

- m) Praktiketako ikasleen eskura jartzea zentroak dituen baliabideak, praktikak hobeto egiteko lagungarri izan daitezkeenak.

7. Artikulua. UPV/EHUko IRAKASLE TUTOREAREN ESKUBIDE ETA ZEREGINAK

Praktikak enborrezko ikasgaiak diren neurrian, tutoreak ikasgai horietako ikasleen erantzukizuna, egutegian ezarrita dauden aurre-formazioa eskaintzea, eta mintegiak bideratzearen ardura hartu beharko du.

Egokitzen zaizkion ikasleen praktikak burutzeko beharrezko laguntza ematea, dokumentazioa azaltzea, zereginak finkatzea, jarraibide egokiak ematea eta ikastetxean egin beharreko lana bideratzea. GAUR plataformako praktiken atala azaltzea, eta ikasleari dagokiona bete egiten dela bermatzea.

Praktiken jarraipena egitea, ikastetxeko edo erakundeetako tutoreekin koordinatuz, ikasleria bete behar dituen zereginetan gidatzea.

Praktikak ebaluatzea: Ikasleak aurkeztuko duen txostena betetzeko behar diren informazioa eta azalpenak ematea eta, ezarritako jarraibideen arabera, ikasleak aurkeztuko duen memoria baloratu eta kalifikatzea. Ikasgaia ebaluazioa eta kalifikazioa atalaren arabera kalifikatuko du.

Practicumaren dekanordeak deitutako bileretara joatea.

Kanpoko tutoreei baimena ematea UPV/EHUko plataforma digitalera sartzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, GAUR plataforman Bilboko Hezkuntza Fakultateko Practicumari buruzko gestioak egitea.

Ikasgaiari dagokion inkesta GAUREn betetzea eta praktikak hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

Praktika zentroko irakasle tutoreei alta ematea GAUR aplikazioan eta tutoretzapean izan behar dituzten ikasleak esleitzea.

8. Artikulua. KANPOKO TUTOREAREN ESKUBIDE ETA ZEREGINAK

Praktika curricularrei buruzko arauak eskuragarri izatea eta GAUR sisteman erregistratuta egotea.

Praktika curricularrak arautzen dituen dokumentaziora sarrera izango du, horretarako GAUR sisteman izendatuta egongo da. Gaur sistema erabiliko du bere zereginak bideratzeko eta dokumentazioa zein informazioa zuzenean eskuratzeko. Praktiketako kanpoko tutorea izanaren ziurtagiria ere Gaur-en bitartez jasoko du.

Zentroaren eta UPV/EHU-ko arduradunen elkarlana errazteko asmoz bi erakundeen koordinazioan lagunduko du

Ikasleari harrera egingo dio, eta bertan gauzatuko dituen jarduerak antolatu eta azalduko ditu.

Ikaslea gidatuko du, burutuko dituen jarduerak gainbegiratzuz, eta izan ditzakeen arazoak konpontzen lagunduz.

Derrigorrezko praktiketarako egokian izan daitezkeen formakuntzarako ekintzak proposatzea.

Praktiketan gorabeherarik gertatuz gero, UPV/EHUko Praktiketako irakasle-tutoreari eta bere ikastetxe edo erakundeko koordinatzaileari horren berri emango dio.

Ikaslearen praktikak ebaluatuko ditu, alde onak zein hobetzekoak agertuz.

Praktikei buruzko inkesta erantzungo du GAUREn, praktikak hobetzeko iradokizunak eginez.

9. Artikulua. IRASLEAREN ESKUBIDE ETA ZEREGINAK

Curriculumaren arabera kanpoko praktiken kasuan, haiei loturiko ikasgaiari matrikulaturik egotea, dagokion Ikasketa Planaren arabera.

Praktikak bideratuko diren enpresa, instituzio edo erakunde publiko edo pribatuarekin, edo Unibertsitatearekin berarekin, inolako kontratu-loturarik ez edukitzea, Akademia

Antolakuntzako errektoreordeak zehaztuko dituen organoek horretarako baimena berriaz ematen duten kasuetan izan ezik.

Practicumaren araudia ezagutzea eta betetzea, eta bertan onartutako prozedurak, datak eta egutegiak bete eta errespetatzea.

Hitzarturiko egunean hastea lanean erakundean edo eskolan; ordutegia beteko du, eta erakundearen jarduerarako, segurtasunerako eta lan-arriskuen prebentziorako arauak errespetatuko ditu. Horrela ezarrita dauden kasuetan ikaslearen ardura izango da eskatzen zaion Natura Sexualeko Delitu Ziurtagiria dagokion lekuan eta eran egokiro aurkeztea.

Praktika-aldi bakoitzean, Unibertsitateko tutorearekin harremanetan egon behar dute, eta haietan sor litekeen gorabeheraren berri emango diote eta ikasgaiari programatutako mintegi, jardunaldi eta jardueretan parte hartuko dute. Saio horietara joatea derrigorrezkoa da (Ikus Ebaluazioa atala). Tutoreak ezarritako epe eta eran, eskatzen zaizkion dokumentuak, txostenak eta amaierako memoria aurkeztu egingo ditu.

Praktika-aldian garatutako jardunari lotuta, lanbideari dagokion kode deontologikoan jasota dauden konfidentzialtasuna eta gainerako jarraibide etikoak errespetatzea ezinbestekoa da.

Mugikortasun programetan dauden ikasleen Practicum sinatutako hitzarmenaren zehaztutako baldintzetan egingo da. Hala ere, horrek ez du esan nahi ez dituenik bete behar gainontzeko ikasleek bete behar dituzten baldintzak. Beste unibertsitatean egiten diren praktikak beste unibertsitateak gestiona tu behar dituzte.

Martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuak zehaztutakoari jarraituz, adin txikikoekin praktikak egingo dituzten ikasleek, EAEn zein mugikortasun programetan, egiaztatu egin

beharko dute ez dutela sexu deliturik. Prozedura web gunean, Practicumari buruzko atalean, egongo da eskuragarri, eta beste bide batzuetatik ere emango da informazioa epez eta behar bezala.

1. oharra: ikaslearen beraren erantzukizuna izango da araudia betetzea; ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

2. oharra: Praktika egonaldian dagoen Bilboko Hezkuntza Fakultateko ikaslea ez da zentroko langilea, beraz ez du zentro horretan greba egiteko eskubiderik. Ikasleagoa zentro edo entitate horietan data horiek nola eramango dituen aurrera zentro horietako zuzendaritzaren ardura izango da. Erabakia beraz zentroarena izango da eta ez ikaslearena. Horrelako kasuetan asistentzia egunero asistentzia kontrolatzen den kasuetan zentroek justifikatu beharko dituzte huts egiteak.

3. oharra: etenaldi akademikorako deia egiten denean, praktiketan dauden ikasleek UPV/EHUko arautegia bete beharko dute.

10. Artikulua: KREDITUAK TRANSFERITZEA ETA AITORTZEA

10.1. Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 6. artikuluan emandako definizioen arabera: Kredituak aitortzea honako hau da: ikasle bat matrikulatzen denean, ikasle horrek UPV/EHUko edo beste unibertsitatearen batean, ikasketa ofizialen batean lortutako kredituak onartzea eta aintzat hartzea titulua lortzeko.

10.2. Praktiketako kredituen aitortpenerako aukerak publikoak dira eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko web orrian aurkituko dira. Fakultate Batzarrari dagokio, edo bere izenean jardungo duenari, aitortpen taulen kudeaketa egitea, gaurkotzea eta argitaratzea, eta baita aitortpena eskatzen duen ikasleari erantzutea ere.

10.3. Kredituen aitortpena eskatzen den kasuan, ebazpenarekin batera, kasua denean, ikasleak balizko helegiteak egiteko prozedura ere jasoko du.

11. Artikulua: SALBUESPENAK eta KASU BEREZIAK

Practicuma enborreko irakasgaia da eta, hortaz, errespetatu beharreko aurrez ezarritako prozedura dauka.

Ikasleak aurrez adierazitako praktika-zentroan burutuko du bere egonaldia. Salbuespena izango da eta dagokion dokumentazioaren bidez justifikatuta egon beharko da, zentroa aldatzeko eskaria. Eskariak idatziz egingo dira eta idatziz erantzun. Ebazpena Practicum-eko dekanordeak egingo du.

Oro har, curriculumaren kanpoko praktikak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira. Salbuespen gisa bakarrik baimendu ahal izango da praktikak beste lurralde-eremu batean egitea, baldin eta behar bezala justifikatutako eta gradu bakoitzeko praktika-batzordeak balioetsitako inguruabar bereziak gertatzen badira¹.

¹ Gizarte Hezkuntzako Graduan, beste lurralde-eremu bateko erakunde baten salbuespenezko baimenak aukera emango du praktiketako erakundearen eskaintzan sartzeko matrikula-aldian. Hala ere, modalitate hori ezin izango da autopracicum gisa hartu, ezta garatu ere.

Praktiketako egoera bereziei buruzko irizpideak.

Esan legez, Practicuma nahitaezko irakasgaia da, eta, hortaz, zehaztuta ditu egutegia, ordutegia eta ordu kopuru bat.

Egoera berezia da ikasleak ezin duenean Practicuma bete fakultateak zehaztutako irizpideen arabera:

a) Ikasketak eta lan jarduna bateragarri egitea

Ikasleak egiaztatzen badu, Gizarte Segurantzaren Alta eta dagokion lan kontratua aurkeztuta, astean 20 orduetik gorako lanaldia daukala eta lanaldi hori eta eskoletara joatea bateraezinak direla, honako eskubideak izango ditu:

I- Eskoletara ez joateko eskubidea, derrigorrezko eskola-saioen 25% arte.

II- Eskoletara Tutoretzak, taldeak, ordutegiak eta txanda aukeratzea eta aldatzea.

Goian aipatutako dokumentazioarekin batera, ikasleak sinatutako txosten bat aurkeztu beharko du, honako hauek adierazita: lanaldia, kontratuaren iraupena, zer irakasgai edo gairen eskoletara ezin den joan, eta irakasgai edo gaiaren eskola-hutsegiteen ehunekoa.

Salbuespen gisa, ikastegiak goian aipatutako eskubideak aitor diezaike astean 20 ordu baino gutxiagoko lanaldia duten ikasleei, aurkeztutako dokumentazioa eta ikasleak bere idatzian adierazitako inguruabarrak aztertu ondoren.

b) Erditzea, adopzioa edo harrerako kasuak eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura daukaten ikasleak.

Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan, ikasleek justifikazio bidez eskoletara ez joateko eskubidea izango dute, derrigorrezko eskola-saioen % 25 arte.

e) Mendeko familiarra zaintzeagatiko zaintzaile ziurtagiria

Norberaren autonomía sustatzeari eta mendeko egoeran dauden pertsonen arretari buruzko uztailaren 14ko 39/2006 Legeak, edo unean-unean indarrean dagoenak, aurreikusitako baldintzetan, mendeko senide baten zaintzailea dela egiaztatzen duen ikasleak honako eskubide hauek izango ditu:

I.- Eskoletara ez joateko eskubidea, derrigorrezko eskola-saioen % 25 arte. II.-

Tutoretzak, taldeak, ordutegiak eta txanda aukeratzea eta aldatzea.

d) Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHUko ikasleak. Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoaren arabera, goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta dauden ikasleek eta Goi Mailako eta, Errendimendu Handiko kirolariei buruzko uztailaren 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, Goi Mailako edo Errendimendu Handiko kirolari gisa egiaztatuta dauden ikasleek, beste arautegi batzuetan aitortutakoez gainera eta dagokion unibertsitatearen gestiorako arautegian ezarritako arauen arabera, honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Txanda, ordutegia, taldea edo tutoretza aukeratzea edo aldatzea, ikasketak entrenamenduen ordutegiekin, lehiaketa ofizialen parte-hartzeekin eta ohiko egoitzatik kanpo egindako egonaldiekin

- bateragarriak izango direla bermatzeko.
11. Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 25eko muga arte, lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
 111. Azterketen egutegi malgua izatea, azterketek dena delako kirol-federazioaren ziurtagiriaren bidez justifikatutako lehiaketa ofizialekin bat egiten dutenean.
 - IV. Aukera askeko kredituak jasotzea, dagokion unibertsitatearen gestiorako arautegiak ezarritako arauen arabera.
 - V. UPV/EHUren ordezkari izateko aukeratutako kirolarietara lehiaketarako beharrezkoa den kirol-ekipamendua emango die Kirol Zerbitzuak. Era berean, eskura dauden bitartekoen baitan, kirol-instalazioak eta baliabide egokiak emango zaizkie, goi mailako edo errendimendu handiko kirolak eskatzen duen entrenamendua egiteko, edozein kirol-modalitatetan.
 - VI. Ikasketen tutorea esleitzea. Tutore horrek laguntza akademikoa emango die, eta, horrez gain, programan sartutako ikasleen eta unibertsitateko estamentuen arteko solaskidea izango da.
 - VII. Eskaintako plazen % 3 erreserbatzeko eskubidea, eta Jarduera Fisikoari eta Kirol Jarduerari buruzko ikasketetan, berriz, % Sa. Eskubide hori soilik aitortuko zaie goi mailako kirolarietara.
 - VIII. Goi mailako kirolarietara Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien ikasketa eta irakaskuntzetara sartzeko eskakizun gisa jarritako proba fisikoak egiteko salbuetsita geratzeko eskubidea izango dute.

UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak aurreko atalean adierazitako eskubideak, g) letran aipatutakoa izan ezik, beste kirolari-talde batzuei zabaldu ahal izango dizkie, eskura dauden bitartekoak kontuan hartuta eta, betiere, beste ikasle batzuen eskubideak urratu gabe.

e) Desgaitasuna duten pertsonak

UPV/EHUko [Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak](#) aitortuta premia bereziak dituzten ikasleak

f) Mugikortasun programetan parte hartzea

g) Garapenerako lankidetzaren programetan parte hartzea.

h) Beste egoera batzuk:

- I. Gaixotasuna, istripua
- II. Administrazio arloko gorabeherak
- III. Bat-batean sortutako ezusteko egoerak

Horrelako egoeraren batean dagoen ikasleak, kasuan-kasuan, eskaria egin ahal izango du:

- a) Praktiketako egutegia aldatzeko
- b) Praktiketako ordutegia aldatzeko
- e) Praktiketako zentroa aldatzeko

Eskaera horiek egiteko prozedura fakultatearen web gunean daga eskuragarri, Practicumaren atalean zein idazkaritzaren atalean.

12. Artikulua: EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

12.1. Praktika-aldia amaitu ondoren emango den kalifikazioak ikasleek prestakuntza fase horretan eskuratutako konpetentziak islatuko ditu. Horretarako GAUR plataforman daude eskuragai txostenak betetzeko dokumentuak. Ebaluazioa prozesu partekatua delako, UPV/EHUko tutoreak, kanpoko tutoreak eta ikasleak, bakoitzak berari dagokion ebaluazio atala dagokion formatuan beteko du dagokion datan horretarako bereziki deitua izan gabe.

12.2. Ikaslearen kalifikazioa irakasle tutorearen eginkizuna da, GAUREn ikasle bakoitzari dagokion nota horretarako onartutako datan argitaratu beharko du.

Ikaslearen praktikaldia bukatutakoan, erakundeko kanpoko tutorearen ebaluazio-dokumentua eta ikaslearen txostenak ikusita, irakasle-tutoreak kalifikazioa ebatsiko du. Nahitaezkoa da ebaluazio atal guztiak gaindituta izatea ikasgaia gainditzeko.

12.3. Kalifikazioa Otik IOera bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

Ez aurkeztua (EA)

O 4.9: Gutxiegi (G)

5.0 6.9: Nahikoa (N)

7.0 8.9: Oso ongi (OO)

9.0 - 10: Bikain (B)

Tutorearen eginkizuna da Practicumeko Batzordeari Ohorezko matrikula eskuratzeko hautagai diren ikasleen zerrenda ematea, kontuan izanda horretarako 9.0 edo handiagoa izan behar dela ikasleak lortutako kalifikazioa. Proposamenak aztertuta, Bilboko Hezkuntza Fakultateko Praktiketako Batzordeari dagokio Ohorezko matrikula ematea, talde-gela bereko 20 ikasleko gehienez ere ohorezko matrikula bat eman daitekeela oinarri hartuta.

Praktiken azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegia jarraituz egingo dira. Ebazpen horren kontra jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko errektoreari. Horrez gain, hurrengo oharrak kontutan hartzekoak dira:

- a- Nahitaezkoa da ebaluazio atal guztiak gaindituta izatea ikasgaia gainditzeko.
- b- Praktiketako alde guztiak gainditu ezik ohiko deialdian emaitza gutxiegi izango da. Eta zenbakizko emaitza ez gainditutako atalaren, edo atal hauen emaitzen batezbestekoa, izango da (beti ere 5 baino gutxiago). Egonaldia gaindituz gero, baina praktiketako azken txostena, memoria edo lan idatzia, dagokion eran edo/eta datan aurkezten ez denean, ohiko deialdiko azken nota "ez aurkeztua" izango da. Ikasgaia urte akademiko horretako ez-

ohiko deialdian gainditzen ez bada ikaslea praktika ikasgai hori osorik errepikatu beharko du eta horretarako berriz matrikulatu beharko da.

e- Ikasgaian gutxiegi lortzekotan (nahiz eta bakarrik atalen batean bada ere) praktika ikasgaia osorik errepikatu beharko da eta horretarako berriz matrikulatu beharko da.

12.4. Practicumaren ebaluazioaren akta UPV/EHUko Ebaluazio Arautegiari jarraituz itxi beharko da, eta irakasle-tutorearen ardura izango da akta behar bezala betetzea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikuluko honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzea.

12.5. Artikulu honetan zehaztutako gainontzeko egoera guztietarako Practicumeko Gidaren Ebaluazioan adierazitakoa beteko da.

Oharra: Ikastetxeko egonaldia egiten den ikasturtean baino ez da izango baliagarria. Txostena gainditu ezean edo adierazitako egunetan aurkeztu ezean, praktikak beraien osotasunean berriro egin beharko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Interesatuak eskari arrazoitua aurkeztuz gero beharrezko diren ziurtagiriekin batera, eta egoera arau hauetan zehaztuta ez badago, eskaria Bilboko Hezkuntza Fakultateko dekanook, edo bere izenean arituko denak, ebatziko du.

Araudi hau Fakultate Batzarrean onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

onartuta: 2026/02/27